

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKUNTZA METALIKOETAKO PROBAK ETA SAIKUNTZAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0608		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaren eta egitura metalikoen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Galdaragintzako eta egitura metalikoetako kalkuluak	Iraupena	170
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Eraikuntza metalikoetako eraikuntza-irtenbideak	Iraupena	90
	Lotura-elementuen kalkulua		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1147_3ko LB3 lanbide-burutzapenarekin: GALDARAGINTZAKO ETA EGITURA METALIKOETAKO KALKULUAK ETA PROBA-PLANAK EGITEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Egitura metalikoetan eta galdaragintzako elementuetan egin beharreko saiakuntzak erabileraren arabera definitzea, produktuan eduki beharreko fidagarritasun- eta kalitate-maila egiaztatzeko.

EI1.1 Egitura metalikoetan eta galdaragintzako elementuetan egin daitezkeen probak eta saiakuntzak —suntsitzaileak eta ez-suntsitzaileak— identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea, espezifikazio teknikoetan eskatutako kalitate- eta segurtasun-baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

EI1.2 Azterketa eta saiakuntzei buruz indarrean dagoen araudia aplikatzea egitura metalikoen eta galdaragintzako produktuen eraikuntzan.

EI1.3 Galdaragintzako elementu baten saiakuntzak definitzean.

- Egin beharreko probak eta saiakuntzak indarrean dagoen araudiaren arabera definitzea.
- Behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatzea, saiakuntzak egiteko eta ebaluatzeko.
- Proba horiek egiteko behar diren kostuak zehaztea.

Edukiak:

1. Eraikuntza metalikoetako saiakuntza suntsitzaileak.

- o Saiakuntza mekanikoak:
 - Materialen propietate mekanikoak.
 - Trakzio-, gogortasun-, erresistentzia- zailtasun- eta neke-saiakuntzak.
 - Ezarritako prozedurak aplikatuz saiakuntzak egitea. Emaitzak interpretatzea.
 - Material berrien ezaugarri mekanikoak: eraikuntza metalikoetako erabilera.
 - Saiakuntza teknologikoak:
- o Tolesketa-, enbutizio- eta soldadura-saiakuntzak.
- o Ezarritako prozedurak aplikatuz saiakuntzak egitea. Emaitzak interpretatzea.

2. Eraikuntza metalikoetako saiakuntza ez-suntsitzaileak.

- o Partikula magnetikoak:
 - Aplikazio-baldintzak.
 - Erabiltzen diren ekipoak.
 - Prozeduraren etapak. Aplikazioak.
 - Saiakuntzak egitea. Emaiza interpretatzea.
- o Likido sarkorrak:
 - Aplikazio-baldintzak.
 - Erabiltzen diren ekipoak.
 - Prozeduraren etapak. Aplikazioak.
 - Saiakuntzak egitea. Emaiza interpretatzea.
- o Ultrasoinuak:
 - Aplikazio-baldintzak.
 - Erabiltzen diren ekipoak.

- Prozeduraren etapak. Aplikazioak.
- Saiakuntzak egitea. Emaidza interpretatzea.
- X izpiak:
 - Erradiaktibitatea. Oinarrizko kontzeptuak.
 - Erradiografia aztertzea. Akatsak. Kausak.
 - Erradiazioen kontra aplikatu beharreko segurtasuna.
 - Erabiltzen diren ekipoa. Prozeduraren etapak.

3. Eraikuntza metalikoetako probei buruzko araudia.

- Araudiaren arabera egin beharreko probak eta saiakuntzak,
- Proben eta saiakuntzen segurtasuna.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaren eta egitura metalikoen diseinua.